



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2011ko martxoaren 11

22. ZK.

A U R K I B I D E A

C SAILA:

Bestelako proposamenak:

—Lege proposamena, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsari buruzko uztailaren 19ko 26/1984 Legea aldatzen duena. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (2. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Jabeldura, gizarte bazterkeriaren aurkako borrokaren alorreko politika orokorrari buruzkoa. Jabeldura erretiratzea (4. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bete dezan ikus-entzunezkoen sektorea dinamizatzeko eta garatzeko plan bat egin eta abian jartzeari buruz legebiltzar honek onetsitako ebazpena. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (4. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Espainiako Estatuko Gobernua premiatzen da 10 neurri hartzera, tortura desagerrarazte aldera. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).

—Adierazpen instituzionala, martxoaren 8an 2011ko Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatzearen karietara. Eledunen Batzarrak onetsia (8. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, Eguesibarko osasun etxea, emakumeari laguntzeko zentroa eta buru-osasuneko zentroa abian jartzeari buruzkoa, María Chivite Navascués andreak egin (9. or.).

—Galdera, jakiteko ea toki entitateak finantzatzeko irizpideak zuzentzat eta egokitzen jotzen diren, José Luis Izco Biarge jaunak egin (9. or.).

—Galdera, jakiteko ea udalek ematen dituzten zerbitzuak egokitzen jotzen diren ala haien eskumenak gehitu beharko liratekeen, José Luis Izco Biarge jaunak egin (10. or.).

—Galdera, Nafarroako Antzoki Sarea programaren garapenaren balorazioari buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egin (11. or.).

—Galdera, Ebro Ibaia BIL izendatzeari eta hura Natura 2000 Sarean integratzeari buruzkoa, Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak egin (11. or.).

—Galdera, Latxa ardien esnearen salmenta txikia dela-eta hartutako neurriei buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egin (12. or.).

C saila:
BESTELAKO PROPOSAMENAK

Lege proposamena, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsari buruzko uztailaren 19ko 26/1984 Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011 martxoaren 4an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsari buruzko uztailaren 19ko 26/1984 Legea aldatzen duen Lege proposamena aurkeztu du, eta eskatzen du presaz eta irakurketa bakarrean izapidetu dadila.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 109., 147. eta 157. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, hona ERABAKIA:

1. Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsari buruzko uztailaren 19ko 26/1984 Legea aldatzen duen Lege Proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Lege proposamen hori presaz eta irakurketa bakarrean izapidetzea.

3. Lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoa bete dezan, eta Gobernuari ohartaraztea bere iritzia adierazteko epea zortzi egunekoa dela.

4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2011ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Lege proposamena, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsari buruzko uztailaren 19ko 26/1984 Legea aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Hainbat elkartek, organizaziok, taldek eta erakunde publikok –besteak beste, Nafarroako Arartekoak– salatu dituzte eta diskriminatzailetzat hartu dituzte zenbait negozio juridikotan jasotako klausulak, zeinen arabera zenbait prestaziotatik eta zerbitzutatik kanpo uzten baitira GIB/HIESa duten pertsonak. Kasurik gehienetan, hori da modu esplizitu eta banakakoan identifikatzen den gaixotasun bakarra. Bazterketa horrek, orobat, ondorioak dakarzkie ukitutako pertsoneri, beren eskubide konstituzionalak normal baliatzea eragozten baitie.

Taldean eta pertsonen bazterketa hori, bete-betean ezarria eta alde batek besteari inposatua, Espainiako Konstituzioko 9.2 eta 14. artikuluek ezartzen duten berdintasun-printzipio oinarrikoaren aurkakotzat hartu behar da. Arau horrek botere publikoak eta herritarrak lotzen ditu.

Itunak ezartzeko askatasuna, zuzenbide pribatuak aldeei aitortzen diena, ezin da erabili bizi-tza sozialeko taldeak gaixotasun bat izate hutsagatik diskriminatzeako estaldura gisa. Askatasun zibila-ren edo borondatearen autonomiaren muga dira legea, pertsonaren duintasuna eta besteen esku-bideak, besteak beste nortasunari eta duintasunari berez datzekienak, Konstituzioko 10.1 artikulua ezarritako balioak direnak.

Hortaz, lege bat behar da, ezartze aldera alde-tako bat GIB/HIESa edukitzeagatik edo seropositibo-a izateagatik diskriminatzen edo baztertzen duen edozein klausulak baliorik eta eraginik ez duela.

Helburu hori lortzeko proposatzen da xedapen gehigarri bat gehitzea Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Defentsari buruzko uztailaren 19ko

26/1984 Legeari, espresuki jasotzen aldera klausula horien baliogabetasuna eta eragingarritasunik eza. Azken xedapen bat ere jarri beharra dago, urtebeteko epe arrazoizkoa emate aldera Espainiako Gobernuari, Kongresuan lege proiektu bat aurkez dezan lege hau aplikatu dakien harreman juridikoetan ondorio baztertzailerak eragiten dituzten beste gaixotasun batzuei ere.

Artikulu bakarra.

Xedapen gehigarri berri bat eta azken xedapen berri bat gehitzen dira. Hona:

“Xedapen gehigarri bakarra. Zenbait klausularen baliogabetasuna eta eraginkortasunik eza.

1. Aldeetako bat GIB/HIESa edukitzeagatik edo seropositiboa izateagatik baztertzuten duten klausulek, estipulazioek, baldintzek edo itunek ez dute baliorik edo eragingarritasunik izanen.

2. GIB/HIESa daukanak edo birus horren seropositiboa denak xedapen honi uko egiteak ere ez du baliorik izanen.

3. Administrazio publikoek eta botere publikoak modu berezi eta eraginkorrean arduratuko dira xedapen gehigarri honetan xedatutakoa ziurtatzeaz.”

“Azken xedapenetako bosgarrena. Beste gaixotasun batzuk ere sartzea eta indarra hartzea.

1. Espainiako Gobernuak urtebeteko epean aurkeztuko du Lege proiektu bat, zeinaren bidez ezarriko baita Lege hau aplikatuko zaiela harreman juridikoetan ondorio baztertzailerak eragiten dituztela iritzitako beste gaixotasun batzuei ere.

2. Lege hau Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean sartuko da indarrean, eta sinatzen diren klausula, estipulazio, baldintza eta itunei nahiz jadanik sinatuta egonik aplikatzeak direnei aplikatuko zaie.”

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, gizarte bazterkeriaren aurkako borrokaren alorreko politika orokorrari buruzkoa.

JABELDURA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela loseba Eceolaza Latorre jaunak aurkezturiko jabeldura, gizarte bazterkeriaren aurkako borrokaren alorreko politika orokorrari buruzkoa, erretiratu izanari

dagokionez. Jabeldura hori 2011ko otsailaren 3ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2011ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen bete dezan da ikus-entzunezkoen sektorea dinamizatzeko eta garatzeko plan bat egin eta abian jartzeari buruz legebiltzar honek onetsitako ebazpena.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita bete dezan ikus-entzunezkoen sektorea dinamizatzeko eta garatzeko plan bat egin eta abian jartzeari buruz legebiltzar honek onetsitako ebazpena.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko, Nafarroako Gobernuak premiatzen duena ikus-entzunezkoen sektorea dinamizatzeko eta garatzeko plan bat egin eta abian jartzeari buruz legebiltzar honek onetsitako ebazpena bete dezan.

2010eko otsailean, parlamentu-talde honek mozio bat aurkeztu zuen, Osoko Bilkurak onetsi zuena eta Nafarroako Gobernuak premiatzen duena ikus-entzunezkoen sektorea dinamizatzeko eta garatzeko plan bat egitera eta abian jartzera.

Mozioan adierazten zen komunikazioaren teknologia berrien garapena, eta zehazkiago LTDarena, ikuspegi orokor baten barruan txertaturik aztertu behar dela; ikuspegi horretan, komunikazio-sistemen globalizazioak eta haien gizarte-erabileraren unibertsalizazioak, alde batetik, eta

Nafarroako Foru Komunitatearen tamaina geografikoak eta errealitate instituzionalak, bestetik, bai eta ikus-entzunezko zerbitzuen eta informazioaren ekoizpenak eta horiek herritarren eskueran egoteak, komenigarri egiten dute administrazio publikoek modu eta teknologia berrien sustapen-lana egitea. Jokaleku horrek aukera interesgarria eskaintzen digu ikus-entzunezkoen sektorearen garapenari pizgarriak emateko, zerbitzu berriek herritarrentzat eskaintzen duten eskuragarritasuna hobetuz eta sektorea bera gure mugetatik haratago proiektatuz. Ikus-entzunezkoen eta informazio nahiz aisialdiarekin lotura duten informazioaren eta komunikazioaren teknologien sektorea etorkizun handikoa da, aukera potentzial ikaragarriak eskaintzen dituena. Ez gara soilik Nafarroako komunikabideez ari, baizik eta garapenaz (I+G+B), osagaien fabrikazioaz, ekoizpen industrialaz, sorkuntzaz, banaketaz, profesionalen prestakuntzaz (teknikariak nahiz iritzi-sortzaileak), eta abar.

Mozio haren asmoa zen –esan bezala, Osoko Bilkuran onetsi zen–, ikus-entzunezkoen sektorea dinamizatu eta garatzeko plan bat proposatuz, dinamizazio-ekimen politiko bat abiaraztea txikia baina potentzialki interesgarria den eta etorkizuna duen industria- eta zerbitzu-sektore baterako. Ekimen hori bide-urratzaile izanen da herritarrentzako kalitatezko zerbitzuen lorpenean, eta konpromisoa izanen du gure errealitate sozial eta instituzionala Nafarroan eta Nafarroatik kanpo proiektatzearekin. Horrek ekarriko du herritarren bizi-kalitatea hobetzea, komunikazio-modu berrien eskurapena orokortzeko eta eskurapen hori guztientzako berdintasunez izateko ekarpena eginen du, eta sektore ekonomiko interesgarri bat indartuko du. “Eskatzen ari garen plan horrek honako lan-ildoak jaso beharko lituzke, beraren bidez kotasuna eta bideragarritasuna egiaztatuko balitz:

- Irrati-eskaintzaren areagotzea, eman gabe dauden lizentzien administrazio-emakidaren bitartez.
- Irrati digitalaren garapenari buruzko azterlan bat egitea. Eta, epe ertainean, erregioko irrati publiko bat abiarazteko aukera aztertzea.
- Nafarroako telebista-emisoreekin lankidetzan aritzeko sistema-esparru bat, haien lehiakortasuna hobetzeko.
- Nafarroako Parlamentuak LTDaren sintonizazioari buruz 2008ko martxoaren 17an emandako Ebazpena, PSNk proposatu eta parlamentu-talde guztiek onetsia, garatzea.

Nafarroan lurralde mugakideetako LTDko kate autonomikoak hartu ahal izateko lankidetzaren autonomikorako hitzarmen egokiak eginez Aragoi,

Euskadi eta Errioxarekin, eta baimenduz Nafarroako LTDko kateak autonomia mugakideetan emititzea. Hitzarmen horiek, betiere, aldeak behartu behar dituzte Foru Komunitatearen errealitate sozial eta instituzionala errespetatzeko konpromisora. Industria Ministerioari LTD kate anizkoitz bat eskatzea, aurrekoari euskarria emanen diona.

- Ikus-entzunezko cluster bat sortu eta abiaraztea.

• Ikus-entzunezko Zientzia eta Arteen Goi mailako Institutu bat sortzearen bideragarritasunari buruzko azterlan. Institutu horrek, NUPekin eta enpresen sektorearekin behar bezalako loturak izanik, modua eman beharko luke Nafarroa erreferente bihurtzeko, bai nazioan eta bai nazioartean.

• Irrati-eskaintza gehitzea, Nafarroako Gobernuaren eta Corporación RTVE (Radio 4)ren arteko hitzarmen baten bidez euskarazko irrati publiko bat abiaraziz. Izaera instituzionala eta zerbitzu publikoa.”

Bada, oraindik ere, legegintzaldi honetako parlamentu-lanak laster bukatuko direlarik, Gobernuak ez du bete Parlamentuaren erabaki horren alderdi bakar bat ere, eta, horrenbestez, parlamentu-talde honek berriz ere aurkeztu behar du mozioa, beteko dela ziurtatzeko xedez:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiaz duen Parlamentu honen erabakia bete dezan, Foru Komunitateko ikus-entzunezkoen sektorearen dinamizazioari eta garapenari buruzko plan bat prestatze eta abiarazte aldera. Honako premisa hauek abiapuntu izanen ditu:

1. Irrati-eskaintzaren areagotzea, eman gabe dauden lizentzien administrazio-emakidaren bitartez.

2. Irrati digitalaren garapenari buruzko azterlan bat egitea. Eta, epe ertainean, erregioko irrati publiko bat abiarazteko aukera aztertzea, modalitate tekniko honetan.

3. Nafarroako telebista-emisoreekin lankidetzan aritzeko sistema-esparru bat, haien lehiakortasuna hobetzeko.

4. Nafarroako Parlamentuak LTDaren sintonizazioari buruz 2008ko martxoaren 17an emandako Ebazpena, PSNk proposatu eta parlamentu-talde guztiek onetsia, garatzea, Nafarroan lurralde mugakideetako LTDko kate autonomikoak hartu ahal izateko lankidetzaren autonomikorako hitzarmen egokiak eginez Aragoi, Euskadi eta Errioxarekin, eta baimenduz Nafarroako LTDko kateak autonomia mugakideetan emititzea. Hitzarmen horiek, betiere, alderdiak lotu behar dituzte Foru Komuni-

tatearen errealitate sozial eta instituzionala errespetatzeko konpromisora. Industria Ministerioari LTD kate anizkoitz bat eskatzea, aurrekoari euskarrria emanen diona.

5. Ikus-entzunezko cluster bat sortu eta abiaraztea.

6. Ikus-entzunezko Zientzia eta Arteen Goi mailako Institutu bat sortzearen bideragarritasunari buruzko azterlana. Institutu horrek balizko loturak izanik NUPekin bere garapen-planen barrene-

an, eta, batez ere, enpresen sektorearekin, modua eman behar luke Nafarroa erreferente bihurtzeko, bai nazioan eta bai nazioartean.

7. Irrati-eskaintza gehitzea, Corporación RTVE-rekin hitzarmen bat sinatuz Nafarroan Radio 4 abiarazteko. Ezaugarriak: instituzionala eta zerbitzu publikoa.

Iruñean, 2011ko martxoaren 2an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Estatuko Gobernuia premiatzen da 10 neurri hartzera, tortura desagerrarazte aldera.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Estatuko Gobernuia premiatzen baita 10 neurri hartzera, tortura desagerrarazte aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta Zabaletak eta Maiorga Ramírez Errok, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikularen eta hurrengoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Ziur gaude gaur egun gizartearen gehiengo oso handi batek nahi duela tortura panorama politikotik desagertu dadin. Horra Nafarroako indar politiko sindikal eta sozialek Lokarri bezalako erakundeekin laguntzarekin sustatutako Gernikako Akordioaren ekimena, askoz ere urrunago joan nahi duena eta ahalik eta eragilerik gehien bildu

nahi dituen. Hortaz, gure asmoa da ekimena zabaltzea Nazio Batuen Erakundeak eta Amnesty Internationalek torturari buruz egindako gomendioak bere egiten dituzten guztiei.

Lehenik eta behin, arreta jarri nahi dugu azken hilabeteotan atxilotutako pertsonarik gehienek egindako tortura-salaketetan (17 salaketa 2010eko irailaz geroztik). Bigarren helburua, eta nagusia, da ez dadila beste inor torturatu, eta horretarako uste dugu ezinbestekoa dela giza eskubideak aldeztu dituzten nazioarteko erakundeek, esate baterako NBE-ek eta Amnesty Internationalek, gomendatutako eta babestutako neurriak aplikatzea; zehazki, tortura behin betikoz desagerraraztearen Torturaren Aurkako Taldearen bidez aurkeztutako hamar neurriak.

2008ko maiatzean Espainiako Estatura eginiko bidaiaren batean tortura gaietarako Nazio Batuen informatzaile bereziak eginiko txostenean atxilotutakoen egoeraren berri ematen da eta auzitan jartzen da inkomunikazio-araubideko atxilotuta, haren ustez tortura eta tratu txarrak gertatzeko bidea ematen duelako. Halatan, atxilotuta inkomunikatua zeharo desagerraraztea gomendatzen du, eta atxilotuei tratu debekatua emateko arriskua handitzen duela berresten du. Hartara, tratu txarren kasuak ekiditeko, eskatzen du atxilotetako guneetan bidezaintza-neurriak aplikatu daitezkeen eta atxilotuak haiek aukeratutako sendagileek azter ditzaten. Espainiako agintariei irrimo gomendatzen die ikerketa azkar, independente, inpartzial eta osoa abiaraz dezaten, tratu txarrak egin direla pentsatzeko arrazoiak dauden guztietan. Orobat uste du arazo bat dela Auzitegi Nagusia bezalako auzitegi bakar batek edukitzea arlo horretako

eskumen osoa. Kondenatuek aurkezten ahal dituzten errekursoak aztertzen ditu, eta uste du ez dagoela epaiaren alderdi guztiak eta ezarritako zigorra aztertzerik.

Tortura da dauden indarkeria-adierazpide anker eta bihozgabeenetako bat, eta giza eskubide oinarritzkoenen urraketa larri-larria izateaz gain, gaur egun dugun oztoporik handienetako bat da agertoki demokratiko berri bat eraikitzeo, indarkeria oro baztertuko duena eta pertsona guztien eskubide guztiak ziurtatuko dituena. Arestian esan dugun bezala, ideologiak eta ezberdintasun politikoak gorabehera, giza eskubide oinarritzkoenak ukitzen dituen auzia dugu honako hau. Parlamentu honetan gaudenok pertsona guztien giza eskubide guztien aldeko apustua egin behar dugu, eta horrenbestez, giza eskubideei eta tortura-salaketei buruzko ikerketa batzorde bat eratu beharko genuke. Eskaera bikoitz hori sendotze aldera esan behar dugu gure ustez beharrezkoa zela Nafarroa osoko udalen eta hautetsien babesia izan zezan, eta hala izan da.

Gernikako Akordioako eragileek, bai eta beste gizarte eragile batzuek ere, Auzitegi Nazionalaren aginduz azken polizia-operazioetan atxilotutako pertsonen ahaideekin, lagunekin eta kideekin hainbat bilera egin ondoren, honako ekimen hau Nafarroako Parlamentuan aurkeztea erabaki dugu, tortura behin betikoz desagerraraztera eraman dezaketen ekimenak abian jartzeko xedez:

Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernuak premiatzen du 10 neurri hauek ezar ditzan, tortura desagerrarazte aldera giza eskubideak aldeztu dituzten nazioarteko erakundeek, esate baterako NBE-ek eta Amnesty Internationalek, bai eta Torturaren Aurkako Taldeak ere, proposatu eta babes-tutakoak:

1. Inkomunikazio-araubidea eta araubide hori aplikatzea ahalbidetzen duen araudi osoa indargabetzea.

2. Atxilotuen eskubideak murrizten dituen lege-araudia indargabetzea. Zehazki, Prozedura Kriminalaren Legeko 520. eta 527. artikulua.

3. Auzitegi Nazionalaren eskumenak desagertzea eta epaile natural batek epaitua izateko eskubidea ziurtatzea.

4. Atxilotu orok konfiantzazko sendagile batek bisitatu eta artatua izateko duen eskubidea ziurtatzea, hala polizia-etxean nola epaitegian.

5. Atxiloketa aldi osoa irudi eta soinu bidez grabatzea, eta grabazio horiek atxilotuaren defentsako abokatuaren eskura egotea.

6. Atxilotu orok konfiantzazko abokatu batek artatua izateko duen eskubidea ziurtatzea, eta harekin komunikazio pribatua izateko aukera ziurtatzea.

7. Tortura kasuengatik irekitako prozesu judizial guztiak burutzea eta behar adina ikertu gabe artxibatutako tortura kasu guztiak irekitzea eta epaitzea.

8. Tortura delitu preskribaezina dela deklaratzeko.

9. Tortura bidez lortutako aitortpenetan oinarritutako epaiketak eta epaiak baliogabetzea.

10. Torturatutako pertsona guztiek laguntza mediko, juridiko eta psikologiko egokia dutela ziurtatzea.

Iruñean, 2011ko martxoaren 3an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Adierazpen instituzionala, martxoaren 8an 2011ko Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatzearen kariatara.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2011ko martxoaren 4an egindako bileran, hurrengo erabakia onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak omendu nahi ditu historian zehar gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasuna defendatzeko lana, ahalegina eta borroka egin duten mundu osoko emakumeak.

2. Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du genero ikuspegia aplikatzeko bere jarduerara guztietan, bai eta gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasuna sustatzen jarraitzekoa ere.

3. Nafarroako Parlamentuak genero indarkeria gizartetik desagertarazteko laguntzen duten politikak bultzatzen jarraitzeko eta, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasun formalaz gain, berdintasun errealaren printzipioa sustatzeko borondatea agertzen du.

4. Nafarroako Parlamentuak bere kezka agertzen du bizi dugun krisi egoera dela-eta, eta Foru Komunitateko erakunde guztiak bultzatzen ditu

ekintza positiboak abiaraz ditzaten emakumeek lan merkatuan duten partaidetza mantentzeko eta handitzeko, bereziki sektore estrategikoetan, eta, horretarako, enplegurako prestakuntza eta indarra hartzen ari diren sektore ekonomikoetako autoenplegua bezalako tresnak erabil ditzaten.

5. Nafarroako Parlamentuak uste du funtsezkoa dela emakumezkoen partaidetza sustatzea I+G+Baren arloko proiektuetan, bai eta emakumeek parte hartzea eta nabarmentzea informazioaren eta teknologia berrien gizaratean.

6. Nafarroako Parlamentuak bultzatzen ditu Foru Komunitateko eta Estatuko administrazio publikoak era koordinatuan lan egin dezaten eta ahal dituzten elkarrizketa- eta kolaborazio-tresna guztiak balia ditzaten, Nafarroan egiazko erreferentzia izan dadin gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasun erreal eta eraginkorra lortzeari dagokionez.”

Iruñean, 2011ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, Eguesibarko osasun etxea, emakumeari laguntzeko zentroa eta buru-osasuneko zentroa abian jartzeari buruzkoa.

MARÍA CHIVITE NAVASCUÉS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Chivite Navascués andreak aurkeztutako galdera, Eguesibarko osasun etxea, emakumeari laguntzeko zentroa eta buru-osasuneko zentroa abian jartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2011ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Chivite

Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Eguesibarko Osoko Bilkurak martxoaren 1ean onetsi zuen, Osasun Departamentuak berak eskatuta, datarik ez jartzea Eguesibarko osasun etxearen irekitzeari.

Informazio horiek ikusirik, alderdi sozialistak hau jakin nahi du:

Osasun Departamentuak noiz du osasun etxea, emakumeari laguntzeko zentroa eta osasun mentaleko zentroa abian jartzeko asmoa?

Iruñean, 2011ko martxoaren 2an

Foru parlamentaria: María Chivite Navascués

Galdera, jakiteko ea toki entitateak finantzatzeko irizpideak zuzentzat eta egokitzen jotzen diren.

JOSÉ LUIS IZCO BIARGE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Luis Izco Biarge jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko ea toki entitateak finantzatzeko irizpideak zuzentzat eta egokitzen jotzen diren.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2011ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Luis Izco Biargek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Toki Administrazioiko kontseilariak ahoz erantzun dezan:

Gauza jakina da toki entitateak etengabe ari

direla kexatzen haien finantzaketa dela eta. Hor-taz, ematen du egokia dela Gobernuari ondoko galdera egitea.

- Gobernuaren ustez, bidezkoak eta egokiak al dira toki entitateak finantzatzeko irizpideak?

Iruñean, 2011ko otsailaren 2an

Foru parlamentaria: José Luis Izco Biarge

Galdera, jakiteko ea udalek ematen dituzten zerbitzuak egokitzen jotzen diren ala haien eskumenak gehitu beharko liratekeen.

JOSÉ LUIS IZCO BIARGE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Luis Izco Biarge jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko ea udalek ematen dituzten zerbitzuak egokitzen jotzen diren ala haien eskumenak gehitu beharko liratekeen.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2011ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Luis Izco Biargek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Toki Administrazioiko kontseilariak ahoz erantzun dezan:

Kontseilari andrea, zuk ondo dakizun bezala Nafarroako Toki Mapa aldatzeari buruzko lan-taldeak bere lana bukatu du, oraintsu, eta ezagunak dira Legebiltzar honetako talde politikoei lortutako adostasun-proposamenak. Hori dela-eta, honako galdera hau egiteari egoki deritzogu:

- Zure ustez, udalek ematen dituzten zerbitzuak egokiak al dira ala, aitzitik, haien eskumenak handitu beharko lirateke?

Iruñean, 2011ko otsailaren 2an

Foru parlamentaria: José Luis Izco Biarge

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José

Galdera, Nafarroako Antzoki Sarea programaren garapenaren balorazioari buruzkoa.

ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Antzoki Sarea programaren garapenaren balorazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2011ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Román

Felones Morrás jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Nafarroako Antzoki Sarea izan da Nafarroako Gobernuaren kultur ekintzaren esparruko programarik garrantzitsuenetariko bat legegintzaldi honetan. Haren ibilbidea zalantzaz eta arazoz josita egon da, Kultura eta Turismo Batzordean eztabaidatu ahal izan dugunari erreparatuz gero. Legegintzaldia bukatzeaz dagoelarik, ondokoa jakin nahi dut:

• ¿Nola baloratzen du Nafarroako Gobernuak Nafarroako Antzoki Sarea programaren garapena?

Iruñean, 2011ko martxoaren 3an

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

Galdera, Ebro Ibaia BIL izendatzeari eta hura Natura 2000 Sarean integratzeari buruzkoa.

PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkeztutako galdera, Ebro Ibaia BIL izendatzeari eta hura Natura 2000 Sarean integratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egin dizkio Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari, edo, subsidiarioki, dagokionari, idatziz erantzun diezazkion.

1. Noiz egin zen Ebro ibaia BIL izendatzeko proposamena, Natura 2000 Sarean integratze aldera? Nafarroako Gobernuak zer egin zuen horri dagokionez, baldin eta ezer egin bazuen? Eta Ingurumen Departamentuak, baldin eta ezer egin bazuen?

2. Aipaturikoa Kontserbazio Bereziko Eremu gisa izendatzeko epeak bete al dira? Nafarroako Gobernuak ezer egin al du horri dagokionez?

3. Zertan da Ebro ibaia BIL izendatzeko proposamena, Natura 2000 Sarean integratze aldera?

4. Ba al dago une honetan leku hori kudeatzeko planik? Prestatzen ari al da edo izapidetzeko faseren batean al dago?

Iruñean, 2011ko otsailaren 28an

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

Galdera, Latxa ardien esnearen salmenta txikia dela-eta hartutako neurri- ei buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Latxa ardien esnearen salmenta txikia dela-eta hartutako neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Abeltzainen sektoreak Nafarroan bizi duen egoera larria dela-eta, latxa ardien esnea saltzen duten ustiategiek arazoak izan dituzte azken hila-beteotan esnea saltzeko. Egoera berri hori dela eta, parlamentari honek haxe jakin nahi du:

1. Nafarroako Gobernuak zer neurri zehatz hartu ditu sektore horri begira?

2. Nafarroako Gobernuak zer politika baliatuko ditu ekidite aldera etorkizunean gisa horretako egoerak errepikatzea?

Iruñean, 2011ko martxoaren 1ean

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero